

Kultur maparen berrantolaketa

Euskadiko Liburutegia Koldo Mitxelena Kulturuneko eraikinean kokatuko da eta Arteleku Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunean txertatuko da

Gorka Erostarbe. Donostia

Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunearen (KGNG) edukien plana eta eraikinaren proiektu arkitektonikoa zehazteko akordioa adostu dute Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Donostiako Udalak. Hiru hilabetez elkarlanean aritu ostean lortu dute akordioa hiru erakundeek. Tabakalera proiektuaren funtsezko oinarrien gainean lortutako akordioak aldaketak ekarriko ditu Gipuzkoako kulturaren mapan. Kultur ekipamenduen berrantolaketa dakar Tabakaleraren egitasmoak. Ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntzari eta industriari dagozkion kultur zerbitzuak bilduko ditu Tabakalerak.

Duela urtebete egin zen KGNGren egitasmoaren lehen aurkezpen ofiziala (BERRIA, 2007ko martxoaren 22a). Etorkizunean Euskadiko Liburutegia izango dena Tabakaleran kokatuko zela azaldu zuen KGNGko zuzendari Joxean Muñozek orduko hartan, nahiz eta KGNGren proiektuaren barruan sartu ez. Atzo jakinarazi zuten Joxean Muñoz berak, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Odon Elorza Donostiako alkateak hiru erakundeen artean lortutako akordioaren berri, eta Euskadiko Liburutegia Koldo Mitxelena Kulturuneko eraikinean izango dela adierazi zuten. Ez da, beraz, Tabakaleran kokatuko.

KMK-ko erakusketa aretoak, aldiz, Tabakalera proiektuaren barruan sartuko dira, eta baita Arteleku arte eta kultura garaikideko zentroa ere. Muñozen hitzetan, Artelekuk egun duen izaera eta programazio bera izaten jarrai dezan saiatuko dira eta Tabakalerak osatu egin beharko du Artelekuren jarduera, formakuntza, gogoeta, sorkuntza eta erakusketa programazioekin. Tabakaleran joango dira Euskadiko Filmategia eta Mediateka ere atzo baieztatu zutenek.

2013RAKO MARTXAN EGOTEKO XEDEA.

Aldaketak izango dira, baina zehaztaper gutxi eskaini zuten atzo, eta ia zko aurkezpenean aipaturiko hainbat egitasmotaz hitzik ere ez zuten esan. Tabakaleran zientziak, gastronomiak eta eleaniztasun egitasmoek lekua izango dutela zioten orain urtebete. Atzo ez zuten horien inguruan deus azaldu. Nolanahi ere, hiru erakundeen artean lorturiko adostasunari esker Tabakaleran egingo denaren inguruko oinarriak bermaturik daude, Muñozek azaldu zutenek. Egitasmoa 2013 urterako osotasunean martxan egotea espero dute kudeatzaileek.

1. Euskadiko Liburutegia

Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren esku jarriko du Koldo Mitxelena Kulturunearen eraikina Euskadiko Liburutegiaren egoitza izan dadin. Koldo Mitxelena Kulturuneko baliabide teknologikoak eta bertako liburutegi funts historikoa hartuko ditu Euskadiko Liburutegiak. Halaber, Donostiako Udalak, dagokion digitalizazio plana adostu ondoren, Euskadiko Liburutegiaren esku jarriko ditu bere jabegoko liburutegi funts historikoak (Mandas Dukearen funtsa eta Hemeroteka historikoa).

2. Arteleku eta KMK-ko erakusketa guneak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ikusizko Arteen Zerbitzua (Arteleku eta Koldo Mitxelena Kulturuneko erakusketa aretoak) Tabakaleran txertatuko du, berezko baliabide eta giza baliabideekin. Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak azaldu duenez, Tabakalerarentzat gune izango dira bere prestakuntza, gogoeta, sorkuntza eta erakusketa egitasmoak osatzean, egun eskaintzen dituzten egitasmoei geroa eta garapena emanez.

3. MEDiateKA

Nazioarteko Kultura Garaikidearen Zentroaren (Tabakalera) Mediatekak, berezkoak duen ikus-entzunezkoen alorreko dokumentazio zerbitzua eskaintzea gainera, bere baitan hartuko ditu kultura bisual garaikidearekin lotura duten Koldo Mitxelena Kulturunearen eta Artelekuko Dokumentazio Zentroaren funts dokumentalak eta halaber, Donostiako Udal Liburutegi Sareko beharrezkoak ikusten diren funtsak. Herritarren informaziorako irisbideetan garaikidetasun eta zentralitate beharrei irtenbidea emango dien instantzia bakar bat lortzea da xedea, Azkarateren hitzetan. Gainera, Mediateka osatzea egokia den aztertuko dute, Gipuzkoako lurralde historikorako eta / edo Donostiako hirirako irakurketa publikoaren sareko buru eginez.

4. FILMATEGIA

Donostiako Udala Euskadiko Filmategia Fundazioko patronatuan sartuko da; eta Euskadiko Filmategiak eta Donostia Kulturako Zinema Unitateak, elkarrekin batera, Tabakalerako muina osatuko dute. Ikus-entzunezkoen zaintza, ikerketa, zapalpena eta programazio ardurak izango dituzte.